

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 26an hartutako erabakiaren laburpena: Merkataritza arloan euskararen presentzia sustatzeko diru-laguntzak emateko udal programaren deialdia

BDNS(Identif.): 514460

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehenen. Onuradunak

Pertsona fisiko nahiz juridikoei eskuratu ahal izango dituzte oinarri hauetan arautzen diren laguntzak, baldin eta ezaugarri hauek betetzen badituzte: (a) kokalekua Vitoria-Gasteizko udalerrian izatea (b) jarduera izatea ostalaritza, merkataritza edo zerbitzuak ematea, (c) jarduera jendaurrekoa izatea, Vitoria-Gasteizko udalerrian bertan, (d) diruz laguntzen diren lanak 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra bitarteko epean egindakoak izatea.

Bigarrenen. Helburua

Jendaurreko atentzioa duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimendu edo entitateetan euskararen presentzia indartzea.

Hirugarrenen. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalerriaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 26an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrenen. Zenbatekoa

Deialdiari 3.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrenen. Eskabideak aurkezteko epea

2020ko irailaren 30 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO